


# Photo- and ElectroCatalysis at the Atomic Scale (PECAS2019)



**27.Abu - 30.Abu**

**Kod. Z19-19**

**Edizioa**  
2019

**Jadueramota**  
Kongresua

**Data**  
27.Abu - 30.Abu

**Kokalekua**  
Miramar Jauregia

**Hizkuntzak**  
Ingelera

**Balio akademikoa**  
40 ordu

**Web**  
<http://pecas2019.dipc.org>

## **ZUZENDARITZA**

**Sara Barja Martínez, UPV/EHU - DIPC**

**Antolakuntza Batzordea**

**UDA IKASTAROAK**  
CURSOS  
DE VERANO  
SUMMER COURSES  
UPV/EHU



Fundación **BBVA**



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
Diputación Foral de Gipuzkoa



**DONOSTIA**  
**SAN SEBASTIÁN**

## Azalpena

Eskala Atomikoko Fotoelektrokatalisiko eskolaren (PECAS) helburua fisikako, materialen zientzietako, kimikako eta elektrokimikako zientzialarien eta ikasleen artean diziplina arteko eztabaida sustatzeko hainbat aukera sortzea da, baita material berrien propietate fotokimikoen eta elektrokimikoen arloko azken emaitzak, ideiak eta metodoak aurkeztea ere.

### Gaiak:

- *Azalaren elektrokimikako teknikak eta metodoak, bai in situ, bai in operando.*
- *Fotoi energia eta energia kimikoa energia elektriko bihurtzea.*
- *Elektrokatalizatzaileak ura bereizteko eta CO<sub>2</sub>aren erredukzioa egiteko.*
- *Gune aktibo lokalak gainazal solidoetan: defektuen erreaktibotasuna.*
- *Ingeniaritza kimikoa eta sistema fotoelektrokimikoen sintesia.*
- *Energia elektrokimikoa biltegitratzeko material berriak.*
- *Biosentsore elektrokimikoak.*
- *Interfaze elektrokimikoen modelatze teorikoa.*

### Batzorde antolatzailea

- Sara Barja, Centro de Física de Materiales (CSIC-UPV/EHU), DIPC (chair)
- Celia Rogero, CFM-CSIC-UPV/EHU, DIPC
- Olaf Magnussen, Kiel University
- Doris Grumelli, MPI-FKF, INIFTA – CONICET

### Helburuak

PECAS 2019k elektrokimikaren eta azalaren zientzien ikerketa arloak uztartzea aurreikusten du, elektrodoen soluzio interfazearen izaera ulertzeko maila atomikoan. Dagokien diziplinetako aditu entzutetsuek azalaren fotoelektrokimikaren arloan egin dituzten azken ahalegin esperimental eta teorikoak aurkeztuko dituzte, eta eztabaida sakona sustatuko dute bi arloetako ikasleen eta komunitate zientifikoaren artean.

Mintegiak graduondo mailan emango dira azalaren zientzien eta elektrokimikaren arloan, baina hiru sarrera hitzaldi izango dira –azalaren zientzia, elektrokimika eta metodo teorikoak–, bereziki PECAS 2019an jorratuko diren gaietako bakoitza Kimikako eta/edo Fisikako master eta graduondoko ikasleei aurkezteko.

### Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



**Bihur**Crystal



## Zuzendariak



**Sara Barja Martínez**

UPV/EHU - DIPC

---

## Matrikula prezioak

<b>REGISTRATION FEES</b>	<b>2019-08-27 ARTE</b>
INVITED SPEAKER / ORGANIZERS	0 EUR
STUDENT	200,00 EUR
REGULAR ATTENDANT	300,00 EUR

## **Kokalekua**

### **Miramar Jauregia**

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa